

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1223

IRAGARKIA, 2022ko martxoaren 1ekoa, Industria Administrazioako Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Bizkaiko Artzentales, Sopuerta, Galdames eta Muskiz udal-mugarteetan dagoen Artzentales-Sopuerta parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Artzentales-Sopuerta parke eolikorako aurkeztutako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokalekua: Torrelaseta gailurra eta Mello mendiaren arteko lerrokadura.
- Eskatzailea: Euskal Haizie, SL.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Artzentales, Sopuerta, Galdames eta Muskiz (Bizkaia).
- Haize-sorgailuen kopurua: 8.
- Instalatu den potentzia gordina: 49,6 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalak	UTM X (m)	UTM Y (m)
1	483085	4790610
2	483007	4791141
3	482944	4791575
4	482932	4792212
5	483090	4792320
6	483104	4792402
7	483227	4792781
8	483363	4793120
9	483650	4793241
10	483809	4793304
11	483918	4793378
12	483998	4793647
13	484214	4793752
14	484330	4793922
15	484977	4793979
16	485061	4793917
17	485327	4794054
18	485569	4794013
19	485938	4794080
20	486101	4794098
21	486426	4794207
22	487257	4794264
23	487729	4794895
24	487824	4795040
25	487983	4795038
26	488191	4794893
27	488102	4794694
28	487933	4794588
29	487725	4794684
30	487487	4794291
31	487298	4794119
32	486442	4794039
33	485856	4793881
34	484940	4793854
35	484405	4793748
36	484044	4793332
37	483697	4793047
38	483452	4792756
39	483141	4792276
40	483267	4790484
41	483131	4790428
42	483085	4790610
1. taula. Proiekturako eskatutako poligonoaren erpinen koordenatuak (UTM-WGS84 Huso30)		

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehia-eskabidea aurkeztu dezaten aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera edo izapidetze elektronikoen plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, Bizkaiko Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritzari zuzenduta, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu/>

Bilbao, 2022ko martxoaren 1a.

Industria Administrazioako Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.